
EUSKALERRIA ERRI-ARTEAN

Gaur Euskalerrria dana, antxiña lurralde asko zabalagoa zan: Sortaldetik lur-arteko itxasoraiño eltzen zan, sartaldetik gaur Kantabria diran ainbat erri euskaldunak ziran, iparraldean, Akitania ta Bearne ta abar ziran euskaldunak eta egoaldetik Burgos'en iparraldea be euskalduna zan eta Euskalerrriaren barruan ortxe sortu zan gaztelerea. Baiña orain Añamendi'ren alde bietatik zabaltzen gara euskaldunok, inditarrak euren "reserva"n lez.

Lurralde onetan egurats-giro egokia daukagu: Mendi-kateen goialdetik leona eta be-aldetik ezoa ta euritsuagoa. Ondoren lez, toki bakoitxean lurraren frutuak be ez dira bardiñak: garia ta matra edo artua ta babea.

Gure lurralde au antxiña basotsua zan eta bideak ez ziran asko, baiña erromatarren aldietan asita, bideak ugaritzen joan dira eta gaur toki bidetsua da. Europatik egoalderantz etorteko Irun-inguruko bideak dira egokiak, naizta Kataluña-aldetik be sarrera onak izan.

Lurralde au lantzea ez da izan gauza erreza euskaldunentzat. Amaika izerdi eder emon dabe gure aurretikoak luna emonkor biurtzeko! Ori ta guzti be, euskaldunak beti aurkitu gara estu geure lurraldean eta beste lurralde batzutura urteteko jokabidea beti izan da gure artean. Errazoi bat izan daiteke euskal legeak eskatzen daben ondorenen edo errentzien arazoa: seme bateri emoten jako baserria eta beste anaiak ez dabe aurkitzen non lan egiñik eta etxetik urten egin bear dabe. Nora? Asko be asko, Kolon'ek Amerikak aurkitu ebazan ezkerro, ango lurraldeetara joan dira. Toki guztiak aurkitzen doguz an euskal-abizenez beterik. Baiña urrago be aurkitzen doguz langille euskaldunen urratsak: Euskaldunak argin onak izan dira lanean. Esaterako Bigarren Felipe'k Eskorial egin ebanean argin euskaldunak eskatu ebazan. Izan ebazan eurakaz lan-giroko gorabeera batzuk be. Euskaldunak erritxu baten bizi ziran, arrobatik urrean, eta an elgonia deritxon gaisoa sartu jaken eta eni aren gaur be Mingorria dei-itxo. Erritxu au ikusten dozunean, ez anitu, orixe da izenaren jatorria. Eta gaztela-gizonai buruz irakurri Kirikiño'ren ipuin ederrak.

Gure izkuntzak berak be gogoratzen dauskuz erromatarraz izan genduzan artu-emonak. Izen asko daukaz euskereak latifñetik artuta: Lurra lantzearen arlokoak, legeen arlokoak, landaren izenak eta abar.

Inguruko erriakaz sarritan ekin bear izan dau burrukalari gure erriak: esaterako frankoakaz, bisigo-doakaz eta ez ainbeste arrabiarraz.

Bide-kurutzea da ba gure erria eta alde orretatik izan dau bere nortasuna galtzeko arriskua, baiña orain artean ondo zaindu dogu geure nortasuna.

Gaur arrisku barriak daukaguz: Txangolaritza edo turismoa da arrisku aundi bat, batez be iparraldean itxas-inguruan eta egoaldeko itxas-erri batzutan be bai. Langintza-arloan be erri guztiakaz artu-emonak bear doguz, eta onetan lan ona egiten dau gure Jaurlaritzak baiña ori baiño arrisku aundiagoa da albistebideena: Telebista sartu jaku euskerearen santutegia izan dan sendira. Egia da euskeraz be ba-daukagula zer-ikusi eta entzun, baiña erderaz geiago. Irratietan be antzera jazoten da, ba-dagoz euskeraz diarduenak baiña askoz geiago erdeldunak eta irratia be etxebarruraino sartuta daukagu. Guzti oneik arerio barriak eta indartsuak dira. Erantzuna emoten jakin bear dogu.

Eta zein izango da gure erantzuna? Geure nortasunari eustea eta orretarako geure euskerea eta erriko oiturak zaintzea. Mundu guztiko errien artean bat izango da gurea eta frutua emongo dau.

OLAZAR'tar Martin'ek

